

# Errioxako ardogileak Bruselaren aurka

Jatorri Deitura Errioxa duen ardo sektorea Europako Batzordeak 2008ko otsailerako egin nahi duen ardoaren merkatuaren erreformaren aurka mobilizatzen hasi da. Landaketak liberalizatzea arbuiatzen dute, oraingo etiketak defendatzen dituzte eta ardoa sustatzeko neurriak eskatzen.

DANIEL UDALAITZ

## ERRIOXAKO ARDOAREN

alde egiteko plataforma antolatu dute eta hor dira alderdi politikoak, gizarte erakundeak, elkarteak, ardandegiak, udalak eta jatorrizko deitura horren pean dauden gobernu autonomikoak. Errioxa Jatorrizko Deitura Kalifikatuaren (JDK) Kontseiluaren Batzordeak arbuiatu egin zuen, berehala, ardoaren erreforma.

Landaketen liberalizazioa arbuiatzea, oraingo etiketak defendatzea eta Errioxa JDK ardoa sustatzea dira plataformaren ardatzak. Europako Batzordeak nahi duen moduan egiten bada, eragin zuzena izango du ardotik bizi diren milaka familiarengan. Arabako Errioxan 2.000 ardogile baino ez badira ere, 11.000 dira ardotik bizi direnak. Errioxa osoan ardogileak 20.000 dira eta, ondorioz, milaka asko kaltetuak.



Europako Batzordeak ardoaren merkatuan egin nahi duen erreformaren aurka daude Errioxa Jatorri Deitura duten ardandegiak.

## Europar Batasunak nolako erreforma nahi du?

Europako Batzordeak produkzio soberakinak kendu eta beste merkatuekiko lehiakortasun handiagoa lortu nahi du. Erreforma hori koordinatzen

duen Europako Nekazaritzako Komisariak dioenez, “Europar Batasuna aitzindaria da sektorean, baina merkatu-kuota galtzen ari gara lehiakideekiko”. Lehiakide horiek Europako mer-

katuetan sartzen ari diren ardo txiletarrak, argentinarrrak eta estatubatuarrrak dira. Bruselak, lehiaketa horri aurre egiteko, merkatuan irteerarik ez duten ardoak kendu nahi ditu diru-laguntzak ukatuz. Hortaz, sektorearen erregulazio bakarra merkatua izatearen alde jokatu du. Erreformak bost alderdi ditu azpimarratzekoak. Hasteko, 20.000 hektarea mahasti erauzi nahi ditu 2008tik aurrera. Erauzitako hektarea bakoitzeko 7.174 euro emango ditu lehen urtean eta bosgarren urtean 2.938 euro. Bigarrenik, diru-laguntzak kenduko dizkiete brandyarentzat, Oportorentzat eta muztioarentzat alkohola destilatzen dutenei. Hirugarrenez, ardo guztien etiketatik uzta eta mahats barietatea jartzea nahi dute. Orain arte arau hori jatorrizko deiturek baino ez zuten bete behar. Laugarrena, “diru-hornidura nazionalak” landatu-

tako azaleraren, produkzioaren eta gastu historikoaren arabera banatu nahi dituzte herrialdeetan. Eta azkenik, Batzordeak 120 milioi euroko erreserba gordeko du, Europar Bata-

## Negoiazioak 2008ko otsailera arte

Europako Parlamentuak 2008ko otsailean erabakiko du Europako Batzordeak proposatu duen ardoaren merkatuaren erreformari buruz. Parlamentuaren erabakia loteslea ez bada ere, ezinbesteko urratsa da, Europar Batasuneko ministroek erregulazio berria onartu baino lehen. Horrela, Europar Batasuneko Nekazaritza Kontseiluak ezingo du Merkatu Antolakunde Bateratuaren (MAB) erreforma bozkatu 2008ko otsailera arte, baina jarrera bateratua lor dezake aurrera egiteko asmoz.

Joan den uztailan, Batzordearen proposamena aurkeztu

zen Europako Parlamentuan. Irailaren 12an, erreformari buruzko entzunaldi publikoa egin zen eta, oraingoz, Parlamentuko Nekazaritzako Batzordeak ez du irizpen-proiektua eztabaidatuko azarora arte. 2008ko urtarrilean, Nekazaritzako Batzordeak mahastizaintzako eta ardogintzako erreformari buruzko bozketa egingo du. Parlamentuaren osoko bilerak MABaren txostena bozkatuko du 2008ko otsailean. Beraz, ordura arte, negoziatio latzak izango dira eta negoziatio horietan Frantzia izango da erreformaren aurkako jarrera dutenen aitzindaria.

suneko ardoa sustatzeko ekintzak finantzatzeko.

### Erreformaren aurka euskaldunak zein espainiarrak

Erreforma honek, guztiak bezala, aldeko eta aurkako jarrerak sorraziti ditu. Espainiako, Frantziako, Portugalako eta Italiako bost jatorrizko deitura –jatorri deitura duten ardogileen %80– erreformaren aurka agertu dira. Ardogile euskaldunak eta errioxarrak sektorea liberalizatzearen, kontrolrik gabeko etiketaren eta sustapen ahularen aurka daude, erabat. Euskal ardogileen eta gainerako errioxarren iritziz, 2014tik aurrera liberalizazioa abian jarriz gero, hau da, gaur egungo mugarik gabe mahastiak landatzen utziz gero, jatorrizko deitura hondatu egingo litzateke eta “mahastizain guztiak desagertuko lirateke”. Erreforma bere horretan egingo balitz, familia mailako mahastizaintza, ardogile eta ardanegi txikiak desagertuko lirateke eta Errioxa hiru latifundio handiren eskuetan geldituko litzateke.

Mahastizain euskaldunei eta errioxarrei mahastiak erauzteak ez dauka zertan kalte handirik eragin, produkzioa eurek mugatzen baitute kalitatea eta errentagarritasuna hobetzeko asmoz. Hala ere, nahiago dute erauzteko gastatzen den dirua komertzializatzeko eta egiturak modernizatzeko erabiltzea, prezioak eta errentagarritasuna

bermatzeko. Baina jatorrizko deituren kezkarik handiena landaketen liberalizazioa da. Erauztea sustatu ondoren, Bruselak mahatso berriak landatzeko murrizketa guztiak kendu nahi ditu. Gaur, mahastiak lantzeko landatze-eskubidea behar da. Errioxa eta antzeko jatorrizko deituren kasuan eurek mugatzen dituzte landatu beharreko hektarea kopurua eta hektareako gehieneko produkzioa, eta horrela, kalitatea hobetzea lortzen dute. Europako Batzordearen erreformak ez du aukera hori aintzakotzat hartzen.

Erreformak arrakasta izaten badu eta Bruselak proposatzen duen eran egiten bada, enpresa handiek, Errioxako mahatsa erabiliz, beste herrialde batzuetan egin dezakete ardoa, baina hango jatorrizko deiturarekin. Horregatik daude erreformaren aurka Espainiako, Frantziako, Portugalako eta Italiako jatorrizko deiturak. Bestalde, ardanegi handiak biltzen dituzten eta negozio-zifra handiak dituzten erakundeak, besteak beste, Ardoaren Enpresa Ardogileen Batzordea edo Ardoaren Espainiako Federazioa erreformaren alde daude. ■

hotela  
*Atxaspi*

Bittiria kalea 24  
31770 LESAKA  
Tel.: 948 637 53  
www.atxaspi.com